

Bergarako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2010-2013 Plana



Bergaran, 2009eko abenduan



AURKIBIDEA

0. SARRERA	4
0.1. <i>METODOLOGIA: Plana diseinatzeko erabilitako metodologia</i>	6
0.2. <i>PLANAREN MARKO KONTZEPTUALA ETA LEGALA</i>	8
0.2.1. <i>Zertaz hitz egiten dugu Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaz ari garenean?</i>	8
0.2.2. <i>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako politiketarako arau-markoa</i>	10
I. BERGARAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2010-13 PLANA	13
1.1. <i>BERGARAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO ESTRATEGIAK</i>	14
1.2. <i>BERGARAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAREN HELBURUAK</i>	15
1.3. <i>BERGARAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAREN HELBURUAK ARLOZ ARLO</i>	16
1.3.1. <i>Udaleko zerbitzu orokorrak</i>	16
1.3.2. <i>Kultura, Euskara</i>	24
1.3.3. <i>Kirola</i>	31
1.3.4. <i>Hezkuntza</i>	35
1.3.5. <i>Enplegua eta Etxeko lana</i>	40
1.3.6. <i>Gizarteratzea</i>	46
1.3.7. <i>Osasuna</i>	53
1.3.8. <i>Hirigintza eta ingurumena</i>	58



1.4. BERGARAKO BERDINTASUNERAKO PLANA GARATZEKO EGITURAK	63
1.5. BERGARAKO BERDINTASUNERAKO PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO EREDUA	66
1.6. PLANA GARATZEKO AURREKONTUEN AURREIKUSPENA: ATALKA ETA URTEKA	68
II. 2010-13 PLANAREN URTEZ URTEKO KUDEAKETA-PLANAK	69
2.1. 2010ERAKO KUDEAKETA-PLANA	70
2.2. 2011RAKO KUDEAKETA-PLANA	72
2.3. 2012RAKO KUDEAKETA-PLANA	79
2.4. 2013ERAKO KUDEAKETA-PLANA	87
III. ERANSKINAK	94
PROGRAMATUTAKO EKINTZEN EBALUAZIORAKO FITXA	



ELHUYAR
ahokularitza

 Bergarako Udala

0 . SARRERA



Berdintasun Planaren diseinua Bergarako Udalak **Elhuyar Aholkularitzarekin** izandako hitzarmenaren emaitza da eta **Emakundek diruz lagundutako egitasmoa**. Berdintasun Planaren diseinua egiteko **parte-hartzean oinarritutako prozesu bat** landu dugu eta prozesu horretan egindako lanarekin txostena osatu dugu: **Bergarako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Plana** (2010-1013). Plan honen diseinurako ezinbesteko tresna izan da 2009an landu zen diagnostikoa: Emakume eta gizonen berdintasun diagnosis, Bergara 2009.

Planak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana ditu erreferentzia gisa. Arau hauek, alde batetik, berdintasunerako politikak eta baliabide estrategikoen ezarpena bultzatzen dituzte administrazioaren barruan, eta bestetik, herritarrentzako jarduketak emakumeen berehalako beharrei erantzun ahal izatea sustatzen dute.

4/2005 Berdintasunerako Legeak eta EAeko IV. Berdintasunerako Planak, erreferentziazko lege marko izateaz gain, balio izan dute udalez gaineko erakundeekin koordinatuta jarduteko, helburuak, neurriak eta estrategiak finkatzeko esparru metodologiko gisa.

Bergarako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Planaren diseinua prozesu parte-hartzaile baten bidez bideratua izan da. Horretarako, 6 lantalde osatu dira Bergarako biztanleriaren eragile adierazgarriekin, Udaleko teknikariek eta politikariek. Guztira, 47 pertsonak hartu dute parte, erdiak baino gehiago emakumeak izan dira (% 60 emakumeak eta %40 gizonak). Guztiei, eskerrak eman behar dizkiegu egin dituzten ekarpenengatik.

Azkenik, Udaleko ordezkari politikoek Berdintasunerako Plana adostu dute. Plan honek Udalaren eta Udalerriaren ezaugarri eta beharrei erantzuten diela uste dugu.



O.1. METODOLOGIA: Plana diseinatzeko erabilitako metodologia


Berdintasun Planaren diseinua egiteko herritarren, herriko eragileen, Udaleko teknikarien eta ordezkari politikoaren parte-hartzea bermatu duen prozesua jarri dugu martxan. Diagnostikoaren emaitzak oinarri gisa hartuta, aurrera begira jartzeko honako lantalde hauek sortu ditugu:

LANTALDEAK	BILERA-KOP.	PARTAIDEAK	PARTAIDE-KOP		
			Guztira	Emakumeak	Gizonak
HEZKUNTZA	1	Arloko eragileak	4	2	2
GIZARTERATZEA	1		5	4	1
KULTURA eta KIROLA	1		5	2	3
HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA GARRAIO PUBLIKOA	1		1	1	0
UDAL TEKNIKARIAK	2	Udaleko teknikariak	21	14	7
UDAL POLITIKARIAK	1	Udaleko ordezkari politikoak	15	9	6

Lantalde bakoitzean Berdintasun Planaren oinarriak landu ditugu eta, arloko diagnostikoaren emaitzak kontuan hartuta, arloko helburu eta proposamenak landu ditugu. Plana diseinatzeko tresna garrantzitsua beraz, 2009an lantalde horietan landutako *Bergarako Emakume eta Gizonen Aukera Berdintasunaren inguruko Diagnostikoa* izan da.



Hona hemen prozesuaren eskema:





0.2. PLANAREN MARKO KONTZEPTUALA ETA LEGALA

0.2.1. Zertaz hitz egiten dugu Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaz ari garenean?

Atal honetan, planaren oinarri kontzeptualak diren printzipio orokorrak garatuko dira. Printzipio hauek Bergarako aukera-berdintasunaren arloan egiten diren politikak bideratuko dituzte, benetako berdintasuna eragozten duten oztopoei aurre eginez eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatuko duten neurriak proposatuz.

Berdintasunaren kontzeptua aztertu aurretik, sexu-genero sistema aipatzea beharrezkoa ikusten dugu. **Sexu-genero sistemak** jarraian azaltzen diren bi elementuen identifikazio-harremana ezartzen duten mekanismo soziokulturei egiten die erreferentzia:

- **Sexua:** Emakumeen eta gizonen artean ematen den ezberdintasun biologikoa definitzen du, modu sinplean esanda, neska jaiotzea ala mutila jaiotzea.
- **Generoa:** Gizarte batek, une soziokultural zehatz batean, emakume eta gizonei ezartzen dizkien ezaugarri, jarrera eta jokabide bereizgarriak dira. Kontzeptua dinamikoa da (hau da, genero-rolen eduki zehatzak momentu historikoaren eta gizartearen arabera aldatzen dira).

Neska ala mutil jaio izanak ez luke, inola ere, aukera-berdintasuna baldintzatu behar, ez luke lan bera egiteko aukera ukatu behar, edo ez lituzke dirusarrera txikiagoak edo handiagoak baldintzatu behar. Diskriminazioa ez da soilik sexuan oinarritzen baizik eta sexuari atxikitzen dizkiogun hainbat ezaugarrietan, gaitasuneta eta ezintasunetan: indartsua edo ahula izatea; inteligentea edo intuitiboa izatea; erasokorra edo zaintzailea izatea, eta beste ideia estereotipatuen eta murrizten zerrenda luze bat, guztiak ere, gure aukera-berdintasuna mugatzen dutenak.

Beraz, diskriminazioa, bazterketa eta indarkeria sexista sexu-genero sistemaren bitartez eraikitzen da. Sistema horren ezaugarri ona bere alde dinamikoa da: sistema horretan eragin dezakegu, sinesmen eta balioetan oinarritzen delako. Azken mendean izugarri aldatu dira bai emakumeen bai gizonen aukerak gure gizartean, eta aukera berdinak izan arte berdintasunaren alde eragiten jarraitu behar dugu.

Gaur egun ematen den berdintasun eza ulertzeko bi konzeptu bereizi behar ditugu: berdintasun formala eta benetako berdintasuna.

Berdintasun formala emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten erakundeen arau eta legeetan jasotzen da. Diskriminaziorik ezaren printzipioa dakar, legeen aurrean berdintasuna izatea, hots, zuzenbideko berdintasuna, ez izatezko berdintasuna. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko beharrezko baldintza bada ere, ez da nahikoa. Halaber, hauxe aitortzen du Europako Kontseiluak (1982): *“Emakumeen eta gizonen berdintasuna, gizakiaren arrazoiaren eskakizuna bada ere, ez da errealitatea, ideal demokratikoak aldarrikatzen dituzten gizarteetan ere”*.



Benetako berdintasuna tratu-berdintasuna da. Pertsonaren sexuan oinarrituriko diskriminaziorik ezan islatzen da, ez zuzenean ezta zeharka ere. Diskriminazioa zuzena dagoela esaten dugu pertsona batek beste batek baino tratu hobea jasotzen duenean sexua edo sexuarekin lotutako beste edozein arrazoi dela-eta. Zeharkako diskriminazioa da gertaera batek sexu bereko pertsonen proportzio handi bati kaltea dakarkionean oinarri-oinarrian.

Printzipio honek bereizketaren ideia dakar izatezko berdintasunerako beharrezko bitartekotza gisa. Bitartekotza horrek aukerak eta emaitzak behar dituzten gero, beharrezkoa da **Aukera-berdintasunean** lan egitea, hots, gizonekin alderatuta berdintasunaren arloan duintasunez tratatuak izateko eskubidean.

Aukera-berdintasunaren helburua esku hartzeko markoa sortzea da, gizarteko arlo guztietan baldintza, ikusgarritasun, autonomia eta erantzukizun berarekin askatasunez parte hartzeko modua ematen diena emakumeei eta gizonei. Kalitate terminoa da eta giza-eskubideekin lotuta dago zuzenean. Emakumeek bizitza-kalitate hobea lortzeko tresna da, eta horretarako, ekintza positiboak erabiltzen ditu.

Ekintza positiboak aldi-baterako neurriak, abiapuntua eta tratamendu berezia dira aukera-berdintasuna lortzeko. Abiapuntuan desabantailak dituztenen aldeko estrategia batean datza ekintza positiboa, hain zuzen, abantaila daramatenen mailara iritsi daitezen. Hala, une jakin batean aukera-berdintasunera iristeko.

Ekintza horiek **Ekintza positiboko planak edo Berdintasun planak** deitzen diren horietan biltzen dira. Izan ere, helburuak egituratzen dituzten tresna politikoak eta administratiboak dira, aukera-berdintasuna lortzeko jarduketa zehatzak bideratzen dituztenak.

Emakumeei buruzko Munduko Hitzaldietan garatu dira emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez gizarte erakundeetan, tokiko politikan edo erakunderik nagusienetan diseinatu diren politikak. Topaketa horien helburua aukera-berdintasuna nazioarteko politiken agendetan txertatzea da. Kongresu haietan aurrerapenak egin ziren harik eta gaur egun generoko Jabetze eta Zeharkakotasunaren inguruko estrategiak aplikatu behar diren inguruko adostasunera iritsi arte (Beijing, 1995).

Genero-ikuspegia udalean aplikatzeak esan nahi du sistematikoki plangintza, garapen eta ebaluazio-fase guztietan, emakumeen eta gizonen egoerak, baldintzak, beharrak eta nahiak aintzat hartzea, betiere desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna udalaren politika eta jarduketa guztietan sustatzeko helburu eta neurri espezifikoak txertatuz. Errealitatea genero-ikuspegitik aztertzeak honako hau suposatzen du:

- Emakume, gizon eta hauen erlazioen errealitatea aztertzerakoan egoten diren joera sexistak plazaratzea.
- Emakume eta gizonen desberdintasunaren atzean dauden egitura-faktoreak identifikatzea, desberdintasun hauek sortu edo birsortzen dituzten diskriminazio-era guztiak atzemanaz.
- Genero-erlazioak birdefinitu, emakumeen egoera agerian utziz, emakumeen beharrak eta interesak kontuan hartuz eta emakumeak gizarteari egiten dion ekarpenari balio handiagoa emanez.



0.2.2. Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaren politiketarako arau-markoa

Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa, baita sexuaren ziozko edozein bereizkeria-mota beren beregi debekatzea ere, arau juridiko batzuetan jasota daude.

Emakumearen aurkako bereizkeria-era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, ondoko konpromisoa hartu zuten KBEko kideek: «printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea».

Beste alde batetik, 1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da. Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikularekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetakoko politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

Azpimarratzekoa da Toki Bizitzan emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Europako Karta, Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluak proiektu baten testuinguruan (2005-2006) idatzitakoa, beste hainbat eragilerekin batera. Europako toki-gobernu eta eskualdeetako gobernuetara zuzendutako idatzia da. Karta honetan aipatzen da tokiko eta eskualdetako agintariak, populazioarengandik hurbilen dauden gobernu-eremuak izanda, desberdintasunen iraunkortasuna eta birsortzea ekiditeko eta berdintasunezko jendartea lortzeko esku-hartze maila egokienak direla. Esku-hartze eremu hauetan beste toki-eragileekin elkarlanean arituz, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko ekintza zehatzak martxan jar daitezke.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1 artikuluan, Espainiako Konstituzioan xedatutakoari aipamen bat eginez, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteez pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztupoak ezabatzeko betebeharra dutela, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauzatu dadin.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea onartuta (Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa da lege hori), lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zuen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku hartze bultzatzaile egiteko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere¹.

2004 urtean Espainiako Estatuak Genero Indarkeriaren kontrako Lege Integrala (1/2004) onartu zuen, indarkeria honi aurre egiteko estrategia ezberdinak ezarriz, bai juridikoak bai gizarte neurriak (prebentzioa eta biktimaren babes integralerako).

¹ 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen Berdintasunerakoa Hemen topa daiteke: www.euskadi.net/bopv (2005/03/05)



Azken urteetan, Administrazioan aukera-berdintasuna bultzatzeko arauak eta ekintza positiboko planak egin dira Euskal Autonomia Erkidegoan toki, lurralde eta autonomia mailan. Tokiko administrazioari dagokionez, bi erreferentzia hartuko ditugu Bergarako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana garatzeko: Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen IV. Berdintasunerako Plana (VIII. legegintzaldiko gidalerroak). Zeharkakotasunaren ildo beretik onartu zen Espainako Estatuan Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunaren Aldeko legea (3/2007).

Lege horrek jauzi kualitatibo handia dakar genero mainstreaming-a edo zeharkakotasuna aplikatzeko norabidean, zeren eta lege hori baino lehen "emakumearentzako" politika espezifikoak sortzeko praktika baitzen oinarria. Hala, 1998an, Eusko Legebiltzarrak, Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko 2/1988 Legea onetsita, lehentasunezko zatikatu zuen emakumeen diskriminazio modu guztiak desagerraraztea eta emakumeek EAEn eremu guztietan parte hartzea sustatzeko beharrezko neurriak hartzea. Halaber, arlo horretan ekintza koordinatua bultzatzeko eginkizuna hartu zuen bere gain.

4/2005 Legean, beren beregi aipatzen dira tokiko administrazioak, eta horrek bete-betean harrapatzen du Bergarako Udala. Zehazkiago, hauxe esleitu zaio tokiko administrazioari udalei dagokien eskumenei buruzko I. Tituluko 7. artikuluan:

1.- Gizon eta emakumeen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, banaka edo herri horietako mankomunitateen bitartez edo legea betetzeko eraturako mankomunitateen bitartez, honako eginkizun hauen arabera:

- a) Egiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea genero ikuspegia administrazioan txertatzeko.**
- b) Ekintza positiboko neurriak betearaztea toki mailan.**
- c) Toki mailako programazioa gobernuaren plangintza orokorraren eremuan eta foru aldundien programazioa.**
- d) Estatistika eguneratuak egokitzea eta gordetzea, toki-mailan esku hartzeko eremuetan gizon eta emakumeen egoera desberdina ezagutzea ahalbidetuko duten estatistikak hain zuzen.**
- e) Emakumeek eta gizonek toki mailan duten egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.**
- f) Gizon eta emakumeen desberdintasunaz eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriez jabetzeko jarduerak egitea toki-mailan.**
- g) Tokiko araudiaren jarraipena egitea, baita gizon eta emakumeen berdintasunaren printzipioaren arabeko aplikazioa ere.**
- h) Gizon eta emakumeen berdintasunari buruzko bitartekoez eta programez informatzea eta bideratzea herritarrek, baita diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarritzko eskubide sozialen jabetza bermatzeko programez edo zerbitzuez ere.**
- i) Programak edo zerbitzuak ematea, diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarritzko eskubide sozialez jabetzea bermatzeko asmoz, betiere zerbitzuen izaera dela-eta udal mailan eman behar badira.**
- j) Gizon eta emakumeen bizitza pertsonala eta familia eta lana bateratzeko gizarte-komunitateko bitartekoak eta zerbitzuak ezartzea, betiere, zerbitzuen izaera dela-eta udal mailan eman behar badira.**



k) Erlazioak eta parte hartzeko eta lankidetzarako bideak ezartzea beste erakunde publikoekin eta pribatuekin, baldin eta beren helburuen edo eginkizunen arabera gizon eta emakumeen arteko berdintasuna toki-mailan lortzea bultzatzen badute.

l) Toki-mailan gertatzen diren sexu-diskriminazioak detektatzea eta horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.

m) Haien eskumenen barruan agindu dakiekeen beste edozein eginkizun.

2.– Tokiko administrazioek aurreko paragrafoan ezarritako funtzioak eraginkortasunez betetzen laguntzeko, administraziook Euskal Autonomia Erkidegoaren laguntza teknikoa izango dute, baita foru administrazioen sustapen-neurri egokiak ere.

Eta “Gizon eta emakumeen berdintasunerako planak” izeneko II. tituluaren 15. artikuluan, hauxe zehazten da:

“Foru aldundiek eta udalek berdintasunerako planak edo programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorretan ezarritako gidalerroekin eta esku hartzeko ildoekin bat etorriz, eta ondorengo bermatuko dute, beharrezko bitarteko material eta ekonomikoak eta giza bitartekoak erabiliz: foru aldundietako sailetan, erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan eta menpeko beste erakunde publikoetan edo horiekin lotutakoetan eraginkortasunez eta koordinatuta betearaztea planetan eta legean ezarritako neurriak. Udalek banaka edo mankomunitate gisa edo horretarako eratuko diren mankomunitate gisa egin ditzakete jarduketak. Hartara, Eusko Jaurlaritzaren laguntza teknikoa eta foru aldundien diru-laguntza izango dute, bereziki, ekonomi eta kudeaketarako ahalmen txikiena dutenek”.

Bestalde, Emakunde 2006an onetsitako **EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako IV. Plana** dago². Plan horretan, VIII. Legegintzaldian berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jardura bideratu behar zuten gidalerroak bildu dira. Aurreko hiru planak indarrean izan diren hiru urteetako eboluzioaren eta aurrerapenen emaitza gisa sortu da, Emakumeen eta Gizonen otsailaren 18ko 4/2005 Legearen onespina irekitzen duen marko berrian.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak bere egin ditu ekintza positiboa eta genero-ikuspegia edo mainstreaming-a txertatzea. Estrategia horiek gehitze-efektua dakarte eta berdintasunerako helburuak lortzen laguntzen dute. Zehazkiago, IV. Planean, lau ardatz bildu dira, berdintasunaren arloan esku hartzeko zutabe handiak biltzen dituztenak –mainstreaming-a, jabetza eta gizarte-politikan parte hartzea, erantzukidetasuna eta bateratzea eta emakumeen kontrako indarkeria-; eta bestetik esku-hartze horiek diseinatzeko, ezartzeko eta betearazteko eremu instituzional nagusiak egituratzen dituztenak: kultura, hezkuntza, enplegua eta lana, gizartratzea, osasuna, hirigintza, ingurumena eta garraio publikoa. Arlo horietan, datozen urteetan landuko diren berdintasunerako politiken arloko lehentasunak zehazten dira ardatz estrategikoetan.

Horren ondorioz, Bergarako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana diseinatzeko, aipaturiko bi neurri horiek eta bertako jarraibideak hartu dira, garaturiko oinarriko printzipioak udal honetan egokitzeko eta zehazteko.

² Plana helbide honetan aurki daiteke: www.emakunde.es



ELHUYAR
aholkularitza

I. BERGARAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2010-13 PLANA



1.1. BERGARAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO ESTRATEGIAK

BERDINTASUN-PLANAREN ESTRATEGIAK			
GENERO- MAINSTREAMING-A	AHALDUNTZEA ETA PARTE- HARTZE POLITIKOA	BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUKIDETASUNA	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
<p>ZER DA? Politika publikoetan genero ikuspegia integratzea. Genero-ikuspegia integratzen badugu, esku-hartze publikoan emakume eta gizonen egoera, baldintza eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea lortuko dugu, batzuen eta besteen abiapuntua kontuan hartuz.</p>	<p>ZER DA? Ardatz hau emakumeen kontzientziazio-prozesuekin lotuta dago (banakakoa eta taldekoa). Emakumeak gizarte, politika eta ekonomia alorretan indartzea beharrezkoa da aukera-berdintasuna lortzeko. Emakumeak kanpoan uzten ez dituen botere-eredu berri bat eraikitzea da ardatz honen azken helburua, emakumeen autonomia pertsonala, ekonomikoa, politikoa eta soziokulturala lortuz.</p>	<p>ZER DA? Bizitzaren maila guztiak harmonizatzea du helburu ardatz honek, horretarako bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuz. Nola?</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ etxeko lanetan gizonen erantzukidetasuna izan dezaten bultzatuta; ▪ enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharretara egokituta; ▪ eta, zerbitzu sozio-sanitarioak eta laguntza ekonomikoak egokituta. 	<p>ZER DA? Emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazpen larrietako bat da emakumeen aurkako indarkeria. Giza eskubideen urraketa larria eta onartezina da eta desagerrarazteko ezinbestekoa da biktimei babesa eta arreta emateko neurriak eta baliabideak antolatzea, baita indarkeria sexista prebenitzea ere.</p>

1.2. BERGARAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAREN HELBURUAK

ARLOA / ARDATZA	ZEHARKAKOTASUNA	AHALDUNTZEA	BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
UDALEKO ZERBITZU OROKORRAK	U.M.1.-Udaleko ordezkari politikoen genero-ikuspegiarekin lan egitea. U.M.2.-Udaleko teknikariek genero-ikuspegiarekin lan egiten dutela bermatzea, berdintasun-defizitak non dauden identifikatu eta horiek ekiditeko neurriak hartuz. U.M.3.-Kanpo- eta barne-komunikazio ez sexista bermatzea, hizkuntza eta irudi bidezkoa, euskaraz zein gaztelaniaz. U.M.4.-Bergarako berdintasun-plana jendarteratzea.	U.A.1.-Udaleko erabaki-organoei eta batzordeetan emakume eta gizonen arteko parekidetasuna bermatzea. U.A.2.-Emakumeen ahotsa indartzea udal-politika publikoen diseinuan eta garapenean. U.A.3.-Barne-promozioan eta enplegu publikoaren eremuan emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzea.	U.B.1.-Lana eta bizitza pertsonala uztartzeko eta ardurak partekatzen neurriak hartzea Udalean eta Udalaren menpeko erakundeetan.	U.I.1.-Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta arreta hobetzeko Protokoloa garatzea eta etengabe hobetzea.
KULTURA ETA EUSKARA	KU.M.1.-Genero-ikuspegia kontuan hartzea kulturarekin, euskararekin, aisialdiarekin eta jalekin lotutako jarduerak planifikatu eta garatzerakoan. KU.M.2.-Bergaran aritzen diren kultura/euskara-elkarteak eta komunikabideak aukera-berdintasunean trebatzea beren jardunean parekidetasunaren alde egin dezaten.	KU.A.1.-Emakumeen autonomia eta parte-hartze sozio-politiko bultzatzea. KU.A.2.-Bergarako emakumeen historia jasotzea eta honen transmisioa bermatzea, bereziki herriko haur eta gazteentz. KU.A.3.-Emakumeen ahaldundua bultzatzea martxoaren 8ko eguna baliaz.	KU.B.1.-Kulturarekin eta turismoarekin lotutako jardueretan emakumeak beren aisialdiaz gozatzeko duten eskubideak sensibilizatzeko eta, aldi berean, gizonen parte-hartzea bultzatzea etxeko eta zaintza lanetan.	KU.I.1.-Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta arbuizatzeko kultura-eta euskara-eragileen inplikazioa bultzatzea. KU.I.2.- Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan sensibilizazioa sustatzea.
KIROLA	K.M.1.-Genero-ikuspegia kontuan hartzea kirol-jarduerak planifikatu eta garatzerakoan.	K.A.1.-Emakumei interesatzen zaizkien kirol-jarduerak egin ahal izateko aukerak zabaltzea (azpiegiturak, ikastaroak, probak, txapelketak...).	K.B.1.-Udaleko kirol-zerbitzu eta baliabideak nesken eta emakumeen beharrezanetara egokitzea.	K.I.1.-Gizon eta emakumeen arteko ez-lehiakortasuna eta berdintasuna bultzatzen duten balioak sustatzea. K.I.2.- Kirolean bizikidetzatzea.
HEZKUNTZA	HE.M.1.-Genero-ikuspegia kontuan hartzea hezkuntzaren arloko jarduna planifikatu eta garatzerakoan. HE.M.2.-Hezkidetzatzea ikastetxeekin antolatzen diren ekimenetan. HE.M.3.-Nesken eta mutilen presentzia eta parte-hartzea sustatzea hezkuntza eremuan. HE.M.4.-Gurasoen eta herriko hezitzaileen artean erantzunkidetasuna sustatzeko ekintzak bultzatzea.			HE.I.1.-Hezkuntzan indarkeria prebenitzeko programetan parte hartzea. HE.I.2.-Gazteekin lan egiten duten eragileen formakuntza bultzatzea sexismoari aurre egin ahal izateko beren jardunean.
ENPLEGUA ETA ETXKO LANA	E.M.1.-Genero-ikuspegia kontuan hartzea enpleguaren eta lanaren arloko jarduna planifikatu eta garatzerakoan. E.M.2.-Enplegu-, lanbide-prestakuntza eta orientazio-zerbitzuetan genero-ikuspegiarekin lan egiteko aurrera pausoak ematea.	E.A.1.-Emakumeek egiten dituzten lanei balio sozial eta ekonomiko handiagoa ematea, bai ordaindu gabeko etxeko-lanei, baita ordaindutako lanei ere. E.A.2.-Oro har, lan-munduan emakumearen presentzia indartzea, bai besteen menpeko langile gisa, baita enpresa-ekintzaile gisa ere.	E.B.1.-Bizitza-pertsonala eta lana uztartzeko aukerak hobetzea, eta neurriak bereziki lan-hitzarmenetan jasotzea.	E.I.1.-Enpleguko sexu-jazarpena prebenitzeko eta gutxitzeko lehen pausoak ematea.
GIZARTERATZEA	G.M.1.-Genero-ikuspegia kontuan hartzea gizarteratzearekin lotutako jarduna planifikatu eta garatzerakoan. G.M.2.- Diskriminazio- edo bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoerak hobetzea.	G.A.1.-Diskriminazio- edo bazterketa egoeran dauden emakumeen ahaldundua sustatzea.	G.B.1.-Familia-zaintza lanetan emakumeen eta gizonen ardura-banaketa orekatzea.	G.I.1.-Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta horren inguruko sensibilizazioa garatzea.
OSASUNA	O.M.1.-Herritarrei sexu-informazio osoa eskaintzea, genero-ikuspegia kontuan hartuz. O.M.2.-Bergarako emakumeen osasun arreta egokia bermatzea, arreta horretan ematen diren oinarriko defizitak azaleratuz.	O.A.1.-Emakumeen beraien osasunaren inguruan erabaki gehiago hartzeko programak sustatzea. O.A.2.-Drogamenpekotasuna: kontsumoaren azterketa egitea	O.B.1.-Familia-zaintzaren ardura emakumeen eta gizonen artean modu parekidean banatzeko neurriak hartzea (haurren, adinekoen eta orokorrean menpekotasun-egoeran daudenen zaintza). O.B.2.-Zaintzaren ardura beren gain hartzen duten emakumeen eskubideak eta ongizatea sustatzea.	O.I.1.-Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako laguntza fisikoa eta psikologikoa hobetzea.
HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA	HI.M.1.-Hirigintzaren, ingurumenaren eta garraio publikoaren eremuan genero-ikuspegia txertatzea.	HI.A.1.-Emakumeek gaur egungo eta herriaren historian egindako ekarpenak hiri-elementuetan islatzea.	HI.B.1.-Garraio publikoaren azpiegiturak egokitzeko bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana uztartu ahal izateko lehen pausoak ematea.	HI.I.1.-Emakumei segurtasunik eza sortzen dieten hirigintza-arazoak irtenbidea ematea, eta bereziki Puntu Beltz* berriak ez sortzeko neurriak hartzea.

* Puntu Beltzak: Erasotua izateko arriskua edota erasoaren aurreko ziurgabetasuna sortzen duten lekuak. Puntu hauetan ezin dira beste pertsonak ezberdindu, ezin da ezer entzun edota ezin zaituzte entzun, ezinezkoa da laguntza eskatzea, mantentze-lana urria da eta gero deserosoa sortzen du.

1.3 BERGARAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA GARATZEKO HELBURUAK, ARLOZ ARLO

UDALEKO ZERBITZU OROKORRAK
ABIATZE-EGOERA
<p>Guztira, Udalean 17 politikari daude (zinegotziak eta alkatea). Horietatik 11 gizonak dira (% 64,7) eta 6 emakumeak (% 35,3). Ondorioz, Udalak ez du betetzen kargu politikoen kopuruari buruzko legeak ezartzen duena (emakumeak % 40). Gizonezko zinegotziak emakumezkoak baino gehiago dira, hala ere, alkatetza emakume batek du, baita alkatetza-ordea ere.</p> <p>Langileen artean ere, gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago dira: gizonezkoak dira langileen % 52, eta % 47, emakumezkoak. Gizon zein emakume gehienak batez ere A mailan daude, % 51 eta % 63, hurrenez hurren.</p> <p>Zerbitzu batzuetan emakumeen presentzia oso txikia da edo ez dago emakumerik: informatikan eta kale-garbiketan, esate baterako, eta bereziki, brigadan. Beste zenbait zerbitzutan, berriz, emakumeen portzentajea altua da: garbitasuna, idazkaritza, kultura eta ongizate sailtan, esate baterako. Beste hainbat zerbitzutan, azkenik, gizonak eta emakumeak berdintsu daude banatuak: euskara zerbitzuan, kontuhartzailertzan, bulego teknikoan...</p> <p>Genero-ikuspegia aplikatzeko baliabide eta irizpide falta dago.</p> <p>Arduradun politikoen babes handiagoa behar da. Berdintasunari dagokionez, premia politikoak zehaztu behar dira, teknikariek konpromiso handiagoa har dezaten eta Bergarako Udalean berdintasuna errealitate bihur dadin.</p>

UDALEKO ZERBITZU OROKORRAK

LEGE-MARKOA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 LEGEAK dioenez;

7. artikulua.– Tokiko administrazioaren eginkizunak.

1.– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal-mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzten dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:

- a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
 - b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
 - c) Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
 - d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
 - e) Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
 - f) Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
 - g) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
 - h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
 - i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
 - j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.
 - k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
 - l) Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
 - m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.
- 2.– Toki-administrazioek aurreko paragrafoan aipatzen diren eginkizunak benetan bete ditzaten laguntzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lankidetzatza tekniko eskainiko die, eta foru-administrazioek ere beharrezkoak diren sustapen-neurriak hartuko dituzte.



16. artikulua.– Estatistiken eta azterlanen egokitzapena.

Lege honetan zehazten diren xedapenak betetzeko eta genero-ikuspegia eguneroko jardueran benetan integrazten dela bermatzeko, euskal herri-aginteez beren azterlanak eta estatistikak egiterakoan honakoak egin behar dituzte:

- a) Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan sexu-aldagaia sistematikoki sartu.
- b) Estatistikako eragiketetan adierazle berriak ezarri eta sartu, hain zuzen ere emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharretan dauden aldeak, horien guztien adierazpena eta aztertuko den errealitatearekin duten elkarreragina hobeto ezagutzea posible egiteko.
- c) Beste aldagai batzuen eragina ezagutzea posible egiteko beharrezkoak diren adierazleak eta mekanismoak diseinatu eta sartu, aldagaiok agertzeak bereizkeria anizkoitzeko egoerak sorrarazten baditu esku hartzeko eremuetan.
- d) Sartutako aldagaiak sexu-aldagaia oinarri hartuta ustiari eta aztertzei adinako lagin zabalak aurkeztu.
- e) Dauden datuak ustiari; horrela, esku-hartzearen eremu ezberdinetan emakumeek eta gizonek bizi dituzten egoera, baldintza, jomuga eta premia ezberdinen berri eduki ahal izango da.
- f) Gaur egun dauden estatistika-definizioak berrikusi eta, hala badagokio egokitu, emakumeen lana aintzatetsi eta baloratzen laguntzeko eta emakumeen zenbait kolektiboren estereotipazio negatiboa saihesteko.

Ohiz kanpoko kasuetan soilik justifikatu ahal izango da gorago aipatutako beharkizunetako bat ez betetzea. Horretarako, gainera, txosten arrazoitua eta organo eskudunak onetsia aurkeztu beharko da.

48. artikulua.– Enplegu-baldintzak.

1.– Euskal herri-administrazioetako langileen lan-baldintzak erregulatzen dituzten arauetan, zehazki, lan-denbora malgutzeko eta berrantolatzei neurriak jaso behar dira –neurri horiek ez dute kalterik ekarri behar enpleguaren kalitatean eta langileen eskubideetan–, bai eta beste zenbait neurri ere, emakumei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea errazteko.

ARLOA: UDALEKO ZERBITZU OROKORRAK

ARDATZA: GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA (MAINSTREAMING-A)

1. Udaleko ordezkari politikoek genero-ikuspegiarekin lan egitea.
2. Udaleko teknikariek genero-ikuspegiarekin lan egiten dutela bermatzea, berdintasun-defizitak non dauden identifikatuz eta horiek ekiditeko neurriak hartuz.
3. Kanpo- eta barne-komunikazio ez sexista bermatzea, hizkuntza eta irudi bidezkoa, euskaraz zein gaztelaniaz.
4. Bergarako berdintasun-plana jendarteratzea.

EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
U.M.1.1 Udaleko arduradun politikoentzako prestakuntza zehatza antolatzea, genero-ikuspegia txertatu ahal izateko beren jardunetan.	BERDINTASUNA		2.500 €				- Ikastaroen kopurua eta orduak. - Parte-hartzaileen kopuruak, sexuaren arabera berezita. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita.
U.M.2.1 Udaleko teknikarientzako prestakuntza zehatza (arlotz arlokakoa) antolatzea, genero-ikuspegia txertatu ahal izateko beren jardunetan.	BERDINTASUNA		3.000 €	3.500 €	4.000 €	4.500 €	- Ikastaroen kopurua eta orduak. - Parte-hartzaileen kopuruak, sexuaren arabera berezita. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita.
U.M.2.2 Aplikazio informatikoetan, estatistiketan, formularioetan, gidetan, dokumentuetan eta bestelako edozein tresnetan datuak sexuaren arabera bereiztea (emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea beteaz).	IDAZKARITZA	INFORMATIKA					- Egindako datu-bilketen kopuruak sexuaren arabera berezita.
U.M.2.3 Arloetan azterketa espezifikoak egin. Txostenak eta balantzeak egiten direnean emakumeen eta gizonen egoeraren azterketa konparatiboak eta ezberdinak egitea (emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea beteaz).	IDAZKARITZA	BERDINTASUNA					- Sexuaren araberako analisi konparatiboak jasotzen dituzten txostenen kopuruak, guztiarekiko (%).



EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
U.M.2.4 Udaleko teknikariei <i>Berdintasun Arlotik</i> aholkularitza eskaintzea, bakoitzaren arloko programa eta ekimenen diseinu, garapen eta ebaluazioan genero-ikuspegia bermatzeko.	BERDINTASUNA						<ul style="list-style-type: none"> - Urtean zehar Berdintasun Arloak jasotako aholkularitza-eskariak, sexuaren arabera berezita. - Urtean zehar Berdintasun Arloak erantzundako aholkularitza-eskariak, sexuaren arabera berezita. - Hartzaileen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita.
U.M.3.1 Udalaren komunikazioan sexismoa ekiditeko irizpideak zehaztu eta adostea, idatzizkoan zein irudi bidezkoan, euskaraz zein gaztelaniaz.	BERDINTASUNA			3.000 €			- Komunikazio ez sexista bermatzeko irizpideak landu izana.
U.M.3.2 Udalaren langile guztiei ezagutaraztea komunikazioaren erabilera ez-sexista bermatzeko zehaztu eta adostutako irizpideak (adibidez, ikastaroak antolatuz, eskuliburua landuz, etab.).	BERDINTASUNA				2.500 €		<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazioaren erabilera ez-sexistaren inguruko sozializazioa egiteko aurrera eramandako ekimen-kopurua. - Parte-hartzaileen kopuruak ekimen horietan, sexuaren arabera berezita. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita.
U.M.4.1 Bergarako Berdintasun Plana jendarteratzeko ekimenak egitea (liburuxka egin, kanpainaren bat...).	BERDINTASUNA		2.000 €				- Bergarako Berdintasun Plana jendarteratzeko egindako ekimen-kopurua eta horien iriste-maila (zenbat jenderengana iritsi diren ekimenok)

ARLOA: UDALEKO ZERBITZU OROKORRAK							
ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA							
1. Udaleko erabaki-organoetan eta batzordeetan emakume eta gizonen arteko parekidetasuna bermatzea. 2. Emakumeen ahotsa indartzea udal-politika publikoen diseinuan eta garapenean. 3. Barne-promozioan eta enplegu publikoaren eremuan emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
U.A.1.1 Udaleko erabaki-organoetan eta batzordeetan emakume eta gizonen arteko parekidetasun-maila aztertzea eta parekidetasuna bermatzeko neurriak hartzea.	BERDINTASUNA						- Helburuarekin lotuta hartutako neurri-kopurua. - Udaleko erabaki-organoetan eta batzordeetan emakumeen parte-hartzea, guztiekiko (%).
U.A.2.1 Udalak sustatutako parte hartzeko prozesuetan emakumeen ikuspegia jasotzeko ahaleginak egitea, edo gutxienez parekidetasuna lortzea.	BERDINTASUNA						- Helburuarekin lotuta hartutako neurri-kopurua. - Emakumeen eta emakume-elkarrekin parte-hartzea, guztiekiko (%). - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita.
U.A.3.1 Barne-promozioan eta enplegu publikoa sortzeko garaian, emakumeek edo gizonak oso ordezkariak apala daukaten lan-kategoria eta lanbideetan, ordezkariak orekatzeko neurriak aztertzea. Emakumeentzako egon daitezkeen oztopoak aztertzea.	IDAZKARITZA						- Helburuarekin lotuta hartutako neurri-kopurua eta ondorioen inpaktua. - Emakume eta gizonen presentzia Udaleko sail, lanbide eta lan-kategoriaren arabera.



ARLOA: UDALEKO ZERBITZU OROKORRAK							
ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA							
1. Lana eta bitzita pertsonala uztartzeko eta ardurak partekatzeko neurriak hartzea Udalean eta Udalaren menpeko erakundeetan.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
U.B.1.1 Udalean eta Udalaren menpeko erakundeetan lana eta bitzita pertsonala uztartzeko eta familiako eta etxeko ardurak partekatzeko dauden aukerak aztertzea, eta bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna bermatzeko, neurri eta irizpide gehigarriak zehaztea eta laneko hitzarmenean jasotzea (emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea beteaz).	IDAZKARITZA						-Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna sustatzeko laneko hitzarmenetan jasotako neurri-kopurua. - Helburuarekiko lotuta, hartutako neurriak baliatu dituzten langileak, guztiekiko (%),sexuaren arabera bereizita.



ARLOA: UDALEKO ZERBITZU OROKORRAK							
ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA							
1. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta arreta hobetzeko Protokoloa garatzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
U.I.1.1 Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Udal Protokoloa garatzea eta etengabe hobetzea.	GIZARTE ZERBITZUAK			3.000 €			- Udal-protokolo bat izatea. - Protokoloaren sinatzaile-kopurua.
U.I.1.2 Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Udalak landutako Protokoloan jasotakoak egin diren eta nola egin diren ebaluatzea.	GIZARTE ZERBITZUAK				3.000 €	3.000 €	- Protokoloaren betetze-mailaren ebaluaziorik egin den.
U.I.1.3 Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Udalak landutako Protokoloan bertan jasotzen diren koordinazio-guneak elkartzea.	GIZARTE ZERBITZUAK						- Protokoloaren koordinazio-guneak egindako bilera-kopurua, zegozkionekiko (%). - Parte-hartzaileen kopuruak, sexuaren arabera berezita, zegozkionekiko (%). - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita.



KULTURA ETA EUSKARA

ABIATZE-EGOERA

Udalak programak diseinatzeko ez ditu kontuan hartzen genero-irizpidea; ezta programaren inpaktua emakumeengan zein gizonengan. Normalean, Udaleko kultura-arloan partehartzaileen edo jasotzaileen datuak ez dira jasotzen sexuaren arabera (Aroztegi Aretoan izan ezik).

Elkarteetan estereotipoak mantentzen direla aipatzen da: zuzendaritza taldeetan, roletan, Hala ere, gastronomi elkarteetan bazkide-proportzioak pixkanaka aldatzen omen doaz (emakume gehiagok parte hartzen). Elkarrekin berak ere bai. Dena dela, ez dago aldaketa hori ziurtatzen duen datu zehatzik jasota.

Esan liteke, aisialdia antolatu eta gozatzeko, oro har, emakumeak joera handia azaltzen duela ikastaroetara etortzeko.

Nahiz eta ez egon inolako baldintzarik neskek, emakumeek, mutilek edo gizonak hainbat kultura-ekintzetan parte hartzeko, "dagozkien genero-aginduen arabera" jokatzeko dute.

KULTURA ETA EUSKARA

LEGE-MARKOA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 LEGEAK dioenez;

24. artikulua.- Elkarteak eta erakundeak.

1.- Euskal herri-administrazioek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritzako organoetan. Horretarako, gehitu eta egokitu ahal izango dituzte elkarte eta erakundeoi adierazitako helburua betetzearen arabera dagozkien diru-laguntzak.

2.- Euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

3.- Lege honetan aipatzen diren helburuak lortzeko asmoz eratutako elkarteak bultzatuko dituzte euskal herri-administrazioek.

4.- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea helburu duten zerbitzuak eskaintzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeak onura publikokotzat deklaratu ahal izango dira, erakunde bakoitzaren forma juridikoari dagokion legedia berezian ezarritakoari jarraiki.

5.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak beharrezkoak diren baliabideak bultzatu eta jarriko ditu entitate bat sortzeko, emakumeek eta herritarren elkarteek politika sozial, ekonomiko eta kulturalen garapenean benetan eta modu askean parte hartzeko bidea eskainiko duena, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-administrazioekin hitz egiteko solaskide onargarria izango dena.

25. artikulua.– Kultura-jarduerak.

1.– Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan.

Debekatu egiten da emakumeek gizonetik berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.

2.– Kultura-jardueraren batean –hor sartuta jai kutsukoak, artistikoak, kirolekoak, eta euskararen normalkuntzaren arlokoak– sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada, euskal herri-administrazioek ezin izango diote jarduera horri inolako laguntzarik eman, edo administrazio horien ordezkariak ezin izango dute jarduerotan administrazioaren ordezkari gisa parte hartu.

3.– Euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan emakumeek eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko.

4.– Euskal herri-administrazioek emakumeen nahiz gizonen kirol-jarduerari laguntzea sustatuko dute, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan. Halaber, gehitu egingo dira emakumeak gehiengoa diren kirol-modalitateentzako laguntza publikoak.



ARLOA: KULTURA ETA EUSKARA							
ARDATZA: GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA (MAINSTREAMING-A):							
1. Genero-ikuspegia kontuan hartzea kulturarekin, euskararekin, aisialdiarekin eta jaiekin lotutako jarduerak planifikatu eta garatzerakoan. 2. Bergaran aritzen diren kultura-/euskara-elkarteak eta komunikabideak aukera-berdintasunean trebatzea beren jardunean parekidetasunaren alde egin dezaten.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
KU.M.1.1 Genero-ikuspegia sistematikoki kontuan hartzea kulturarekin eta aisialdiarekin lotutako jarduerak, baliabideak, azpiegiturak, ekimenak... diseinatu, garatu eta ebaluatzeke garaian (adibidez hezkidetzeta programa integralak...).	KULTURA	BERDINTASUNA					- Genero ikuspegia jasotzen duten ekimenen kopuruak, guztiekiko (%).
	EUSKARA	BERDINTASUNA					- Ekimen horietako parte-hartzaile kopuruak, sexuen arabera berezita.
KU.M.1.2 Estatistiketan, formularioetan, gidetan, dokumentuetan eta bestelako edozein tresnetan datuak sexuaren arabera bereizten jarraitzea eta datu horiek ustiatzea.	KULTURA	INFORMATIKA					- Sexuaren araberako datuak berezita egindako datu-bilketen kopuruak, guztiekiko (%).
	EUSKARA	INFORMATIKA					
KU.M.1.3 Txostenak eta balantzeak egiten direnean emakumeen eta gizonen egoeraren azterketa konparatiboak eta ezberdinduak egitea.	KULTURA						- Sexuaren araberako analisi konparatiboak jasotzen dituzten txostenen kopuruak, guztiekiko (%).
	EUSKARA						
KU.M.1.4 Komunikazio-kanpainen irudi aurrerakoiak transmititzen jarraitzea, sexismoa transmititzen duten irudi eta mezuak baztertuz.	KULTURA						- Irudi aurrerakoiak transmititzeko helburua kontuan hartuta lan egin den komunikazio-kanpainen kopuruak, guztiekiko (%).
	EUSKARA						- Aztertutako eta ezabatutako kanpaina desagokiak.



EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
KU.A.2.1 Jarduerak eta ekintzak egiteko eskaintzen dituen diru-laguntza deialdietan aukera-berdintasunaren sustapenarekin lotutako irizpideak txertatzea. Oinarrietan, era honetakoak gehitzea: egitarauak edo jarduerak gizon eta emakumeen berdintasuna bultzatzea, elkarre barruan emakume eta gizonen parte-hartzea orekatua izatea, Legeak eskatzen dituenak betetzea.	KULTURA						- Aukera-berdintasuna sustatzeko irizpideak jasotzen dituzten diru-laguntza deialdien kopuruak, guztiekiko (%). - Aukera-berdintasuna sustatzeko helburua duten lagundutako ekimenak, guztiekiko (%).
	EUSKARA						
KU.A.2.2 Tokiko komunikabideekin hitzarmena lotzea Bergarako emakumeen jarduerari (kultura arloan etab.) segimendu handiagoa eta hobea egiteko.	EUSKARA			1.000 €	1.200 €	1.500 €	- Tokiko komunikabideekin lortutako hitzarmen-kopurua, guztiekiko (%). - Tokiko komunikabideek Bergarako emakumeen kultura-jardueraren inguruan egindako estaldura (agerpen-kopurua eta agerpenen kalitatea), guztiekiko (%).

ARLOA: KULTURA ETA EUSKARA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA							
1. Emakumeen autonomia eta parte-hartze sozio-politikoa bultzatzea. 2. Bergarako emakumeen historia jasotzea eta honen transmisioa bermatzea, bereziki herriko haur eta gazteenei. 3. Emakumeen ahalduntzea bultzatzea martxoaren 8ko eguna baliatuz.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
KU.A.1.1 Emakumeen ahalduntzea sustatzera bideraturiko programa bat diseinatzea eta martxan jartzea, ahalduntzea lantzerako bideraturiko ekimenak antolatzea (ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak...).	BERDINTASUNA	KULTURA		3.000 €	5.000 €	7.000 €	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen ahalduntzea helburu duten ekimenen kopuruak, antolatu edo sustatu direnak, guztiekiko (%). - Ekimen horietako parte-hartzaile kopuruak, sexuen arabera berezita. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita.
KU.A.2.1 Bergarako emakumeen historia jasotzen jarraitzea: aldizkariaren eta webgunearen bidez sistematikoki jasotzea, hitzaldiak antolatzea...	KULTURA						<ul style="list-style-type: none"> - Azterketa lana martxan jarri eta bukatu izana.
KU.A.3.1 Martxoaren 8ko nazioarteko egunaren inguruan emakumeen ahalduntzea bultzatzeko ekimenak antolatzea berdintasun ezak sortzen dituen desorekak azaleratuz (ekonomikoak, sozialak, familia arloan etab.)	BERDINTASUNA			1.000 €	1.500 €	2.000 €	<ul style="list-style-type: none"> - Helburuarekin lotuta antolatutako ekimen-kopuruak. - Ekimenetan parte-hartzaileen edo hartzaileen kopuruak. - Partaideen asebetetze-maila.

ARLOA: KULTURA ETA EUSKARA							
ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA							
1. Kulturarekin eta turismoarekin lotutako jardueretan emakumeak beren aisialdiaz gozatzeko duten eskubideaz sentsibilizatzea eta, aldi berean, gizonen parte-hartzea bultzatzea etxeko eta zaintza lanetan.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
<p>KU.B.1.1 Bergarako jaietan edota aisialdiarekin lotutako egun seinalatuetan mezuak jendarteratzea emakumeei aisialdiaz gozatzeko duten eskubidea gogoraraziz eta gizonezkoei zaintzalanearan ardura handiagoa hartzeko eskatuz. Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Herriko jai guztietan Udaletxeko balkoian jarriko den pankarta bat egitea (kalitate onekoa eta iraungo duena...): "jaixetan be berdintasunien..." 	BERDINTASUNA	KULTURA		600 €	700 €	800 €	<ul style="list-style-type: none"> - Era honetako mezuak landu eta jendarteratu diren jai edo festa-kopurua, guztiekiko (%). - Landutako mezu-kopurua (Udalean, txosnetan, tabernetan, dendetan...). - Mezuak jendarteratzeko erabilitako euskarri edo bide-kopurua. - Mezu horien hartzaile izandakoen kopuruak, sexuen arabera bereizita.



ARLOA: KULTURA ETA EUSKARA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA							
1. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta arbuizatzeko kultura- eta euskara-eragileen inplikazioa bultzatzea.							
2. Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan sentsibilizazioa sustatzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
KU.I.1.1 Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko kultura-jarduerak sustatzea, herriko kultur-talde eta eragileei ematen zaizkien diru-laguntzetan era honetako ekintzak edo jarduerak baloratuz.	KULTURA						- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko aurkeztutako kultura-jardueren kopuruak, guztiekiko (%). - Lagundutako edo sustatutako kultura-jardueren kopuruak, guztiekiko (%).
	EUSKARA						
KU.I.1.2 Jai eta festetan indarkeria eta jarrera sexistak ekiditeko mezuak eta leloak landu eta horiek jendarteratzeko bitartekoak lantzea, gizona-koentzako zein emakumezkoentzako mezuak landuz. Adibidez: - Herriko jai guztietan Udaletxeko balkoian jarriko den pankarta bat egitea (kalitate onekoa eta iraungo duena...): "jarrera sexistarik ez!"... - Txosna, taberna, dendetan... behintzat jaietan "lokal honetan ez da jarrera sexistarik... onartzen...". Banatu eta gero jarraipena egin.	BERDINTASUNA			600 €	700 €	800 €	- Era honetako mezuak landu eta jendarteratu diren jai edo festa-kopurua, guztiekiko (%). - Landutako mezu-kopurua. - Mezuak jendarteratzeko erabilitako euskarri edo bide-kopurua. - Mezu horien hartzaile izandakoen kopuruak, sexuen arabera bereizita.
KU.I.2.1 Emakumeen kontrako Indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzak antolatzea, adibidez, azaroaren 25aren inguruan (gaia lantzeko nazioarteko eguna), ekainaren 28an (Gay, Lesbianen eta Transexualen Harrotasunaren Nazioarteko Eguna)...	BERDINTASUNA		1.500 €	1.500 €	2.000 €	2.000 €	- Antolatutako sentsibilizazio-ekintzen kopurua. - Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren arabera bereizita. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera bereizita.



KIROLA

ABIATZE-EGOERA

Normalean, Udaleko kirol-arloan parte-hartzaileen edo jasotzaileen datuak ez dira jasotzen sexuaren arabera (egindako esperientziaren batean izan ezik).

Elkarteetan estereotipoak mantentzen direla aipatzen da: zuzendaritza taldeetan, roletan,

Nahiz eta ez egon inolako baldintzarik neskek, emakumeek, mutilek edo gizonek hainbat kirol-ekintzetan parte hartzeko, “dagozkien genero-aginduen arabera” jokatzeko dute.

Eskoletan nahasian ibiltzen dira neska-mutilak. Eskolaz kanpokoetan, ordea, neskak neskekin eta mutilak mutilekin biltzeko joera dute.

KIROLA

LEGE-MARKOA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 LEGEAK dioenez;

25. artikulua.– Kultura-jarduerak.

3.– Euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan emakumeek eta gizonek tratu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko.

4.– Euskal herri-administrazioek emakumeen nahiz gizonen kirol-jarduerei laguntzea sustatuko dute, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan. Halaber, gehitu egingo dira emakumeak gehiengoa diren kirol-modalitateentzako laguntza publikoak.

ARLOA: KIROLA							
ARDATZA: GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA (MAINSTREAMING-A):							
1. Genero-ikuspegia kontuan hartzea kirol-jarduerak planifikatu eta garatzerakoan.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
K.M.1.1. Agorrosin Ekintza Guneko txostenetan sexuaren araberako datu bilketa eta azterketa egiteko OMESA programa informatikoaren berrantolaketa eta garapena egitea: Abonu azterketa txostena, Ikastaro azterketa txostena, Ikastaro asebetetze-inkesta eta Alokairu azterketa txostena.	KIROLA AGORROSIN				3.000 €		- Sexuaren araberako datuak bereizita egindako datu-bilketen kopuruak, guztiekiko (%).
K.M.1.2. Komunikazio-kanpainetan irudi aurrerakoiak transmititzen jarraitzea, sexismoa transmititzen duten irudi eta mezuak baztertuz. - Orain arte sortutako materiala aztertzea eta ondorioak ateratzea hurrengoetarako irizpideak ezartzeko. - Ezarritako irizpideak betez kanpainak egitea	KIROLA	BERDINTASUNA					- Irudi aurrerakoiak transmititzeko helburua kontuan hartuta lan egin den komunikazio-kanpainen kopuruak, guztiekiko (%). - Aztertutako materialaren eta txostenaren aurkezpena eta onarpena. - Irizpideak bete egindako kanpainak egindakoekin alderatuz (%).
K.M. 1.3. Begirale-hezitzaileentzako sentsibilizazio eta formazio-ekintzak antolatzea.	KIROLA	BERDINTASUNA	3.000 €				- Ikastaroen/ekintzen kopurua eta orduak. - Parte-hartzaileen kopuruak, sexuaren arabera bereizita. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera bereizita.



ARLOA: KIROLA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA							
1. Emakumeei interesatzen zaizkien kirol-jarduerak egin ahal izateko aukerak zabaltzea (azpiegiturak, ikastaroak, probak, txapelketak...).							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
K.A. 1.1. Diru-laguntzetako oinarrietan honako irizpideak era honetakoak txertatzea: egiturazko diru-laguntza ildoetan emakume lizentzien puntuazioa hobestea, kirol-jardueren antolaketarako diru-laguntzetako irizpideetan emakumeen partaidetza sustatzeko irizpideak ezartzea.	KIROLA						- 2010eko diru laguntzetako oinarrietan irizpideak jaso izana. - Diru-laguntza eskaeretan emakumezkoen parte-hartzea sustatzeko neurriak hartu dituzten eskaera edota ekimen kopurua, guztiekiko (%).

ARLOA: KIROLA							
ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA							
1. Udaleko kirol-zerbitzu eta baliabideak nesken eta emakumeen beharrianetara egokitzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
K.B.1.1 Udaleko kirol-zerbitzu eta baliabideen azterketa egitea, genero-ikuspegia kontuan hartuta eta beharrezko diren neurriak aurreikustea.	BERDINTASUNA				6.000 €		- Azterketa egin izana. - Aurreikusitako neurri kopurua.



ARLOA: KIROLA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA							
1. Gizon eta emakumeen arteko ez-lehiakortasuna eta berdintasuna bultzatzen duten balioak sustatzea.							
2. Kirolean bizikidetzaren sustatzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
K.I.1.1 Eskaintzen diren jardueretan ematen diren jokabide sexisten identifikazioa egitea eta identifikatutako egoera/lekuen araberako esku-hartzeak egitea.	KIROLA	BERDINTASUNA			6.000 €	3.000 €	-Kirol jardueretan emandako jokabide sexisten identifikazio txostena. -Identifikatutako alorretako esku hartze egitasmoak garatzea.
K.I.2.1 Kirolean bizikidetzaren sustatzeko portaera onen esku-liburua argitaratzea	KIROLA	BERDINTASUNA				6.000 €	-Esku-liburua prestatu, argitaratu eta banatu izana.



HEZKUNTZA

ABIATZE-EGOERA

Bergarako ikasleen artean, hezkuntza arautuan jarduten duten ikasle emakumezkoak 1.524 dira eta gizonezkoak 1.494. Beraz, portzentajeak oso antzekoak dira: emakumeak % 50,49 eta gizonak % 49,50. Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan mutilen kopuruak dira nagusi. Lanbide Heziketan ere mutilak gehiago dira erdi-mailan, 103 mutil (% 72) eta 40 neska (% 28). Goi-mailako Lanbide Heziketan, ordea, emakumezkoen presentzia handiagoa da: 115 emakumezko (% 58,3) eta 82 gizonezko (% 41,6). Azkenik, Emakumeak dira gehienak HHE/EPAn (Helduen Hezkuntzan 296 emakume (% 73) eta 110 gizon (% 27)).

- ❑ **Gizonezkoen presentzia** emakumezkoena baino handiagoa da, honako ikasketa-motetan: Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketako erdi-mailan.
- ❑ **Emakumeen presentzia** gizonena baino handiagoa da honako ikasketa-motetan: Batxillergoa, Lanbide Heziketako goi-maila eta, batez ere, Helduen Hezkuntza (HHE/EPA).

Hezkuntza arautuan, beraz, derrigorrezkoa den bitartean antzeko kopuruetan daude banatuak neskak eta mutilak, jaiotze-tasaren arabera. Baina hezkuntza hautazkoa bihurtzen den unetik, bereizten hasten dira hautuak. Enpleguari begira jarrita, desberdin jokatzen dutela esan daiteke lasai.

Horrez gain, hezkuntza ez-arautuaren barruan Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik antolatutako ikastaroetako parte-hartzaileak emakumezkoak dira. Antolatzerakoan, emakumeentzako ikastaroak izatea aurreikusten da. Helburu nagusia emakumeen parte-hartzea, garatzea eta harremanak eta sare soziala egitea izan ohi dute ikastaroek. Etxeko lanak izeneko ikastaroan, salbu. emakumeak % 54, gizonezkoak % 46

Bestalde, Kultura Sailak antolatutako ikastaroetan, urtez urteko datuek erakusten digutenez, prestakuntza ez-arautuan gizonen parte-hartzea txikiagoa da emakumearenaren aldean. Beti % 20 baino txikiagoa.

Hezkuntzan orokorrean esan daiteke **estereotipoak** bizirik daudela: nesken jolasak, mutilen jolasak, mutilentzako musika-tresnak, neskentzako musika-tresnak...



HEZKUNTZA

LEGE-MARKOA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 LEGEAK dioenez;

28. artikulua.– Xedapen orokorra.

Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren arabeko estereotipoak eta rola baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrear.

29. artikulua.– Curriculuma.

2.– Era berean, Hezkuntza Administrazioak oinarritzko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketaarekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzaren ereduak ikastearekin.



ARLOA: HEZKUNTZA							
ARDATZA: GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA (MAINSTREAMING-A)							
1. Genero-ikuspegia kontuan hartzea hezkuntzaren arloko jarduna planifikatu eta garatzerakoan. 2. Hezkidetzaren bultzatzea ikastetxeekin antolatzen diren ekimenetan. 3. Nesken eta mutilen presentzia eta parte-hartzea sustatzea hezkuntza eremuetan. 4. Gurasoen eta herriko hezitzaileen artean erantzunkidetasuna sustatzeko ekintzak bultzatzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
HE.M.1.1 Estatistiketan, formularioetan, gidetan, dokumentuetan eta bestelako edozein tresnetan datuak sexuaren arabera bereizten jarraitzea eta datuak ustiatzea.	HEZKUNTZA	INFORMATIKA					-Sexuaren araberako datuak bereizita egindako datu-bilketen kopuruak, guztiekiko (%).
HE.M.1.2 Txostenak eta balantzeak egiten direnean, nesken, emakumeen, mutilen eta gizonen egoeraren azterketa konparatiboak eta ezberdinduak egitea.	HEZKUNTZA						-Sexuaren araberako analisi konparatiboak jasotzen dituzten txostenen kopuruak, azterlan kopuruak eta tipologia, guztiekiko (%).
HE.M.1.3 Komunikazio-kanpainetan irudi aurrerakoiak transmititzea: harreman erduetan ematen den aniztasuna islatzea, emakumeen eta gizonen arteko ohiko rolen trukaketa ikustaraztea, etab.	HEZKUNTZA						-Irudi aurrerakoiak transmititzeko helburua kontuan hartuta lan egin den komunikazio-kanpainen kopuruak, guztiekiko (%). -Sexuaren araberako datuak bereizita egindako datu-bilketen kopuruak, guztiekiko (%).



EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
HE.M.2.1 Sexuen araberako rol desberdinak ikasteko, kasu praktikoak lantzea. Umeen irteeratan, aisiarako ekintzetan...generoaren ikuspegia kontuan hartutako lekuak, ekintzak... antolatzea.	BERDINTASUNA						<ul style="list-style-type: none"> -Programan parte hartu duten ikastetxeen kopurua, guztiekiko (%). -Helburuarekin lotuta, egindako ekimenen kopurua. -Ekimen horietan parte-hartzaileen edo hartzaileen kopuruak, sexuaren arabera bereizita. -Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera bereizita.
HE.M.3.1 Jarduerak eta ekintzak egiteko eskaintzen diren diru-laguntza deialdietan zehazten diren aukera-berdintasunaren sustapenarekin lotutako irizpideen betetze-mailaren jarraipena egitea.	HEZKUNTZA						<ul style="list-style-type: none"> -Aukera-berdintasuna sustatzeko irizpideak jasotzen dituzten diru-laguntza eskaeren kopuruak, guztiekiko (%). -Aukera-berdintasuna sustatzeko helburua duten lagundutako ekimenak, guztiekiko (%).
HE.M.4.1 Udalarekin koordinatuta, gurasoei eta herriko hezitzaileei (ludotekakoak eta udalekutakoak, adibidez) zuzendutako hezkidetzaren aldeko ekintzak antolatzea, hala nola, jolas ez sexisten tailerrak edo ipuin ez sexisten informazioa, edo bestelako hezkidetzak gaien inguruko hitzaldiak.	BERDINTASUNA	HEZKUNTZA		1.200 €	3.000 €	3.500 €	<ul style="list-style-type: none"> -Helburuarekin lotuta egindako ekintza-kopurua. - Parte-hartzaileen kopuruak, sexuaren arabera bereizita. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera bereizita.



ARLOA: HEZKUNTZA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA							
1. Hezkuntzan indarkeria prebenitzeko programetan parte hartzea.							
2. Gazteekin lan egiten duten eragileen formakuntza bultzatzea sexismoari aurre egin ahal izateko beren jardunean.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
HE.I.1.1 Hezkuntza formalean zein ez formalean ikastetxeetako zein bestelako erakundeetako emakumeenganako indarkeria prebenitzeko programetan parte hartzea, hainbat ekimen koordinatuz.	BERDINTASUNA	HEZKUNTZA Ikastetxeak Hezkuntzaren arloko bestelako eragileak	3.000	3.000	3.000	3.000	- Programan parte hartu duen ikastetxe-kopurua, guztiekiko (%). - Ikastetxeetan atzemandako eta bideratutako kasu-kopurua, guztiekiko (%).
HE.I.2.1 Indarkeria sexista detektatzeko eta horren aurrean nola jokatu jakiteko, baita kasu larriak bideratzeko, formakuntza jasotzea.	BERDINTASUNA	HEZKUNTZA Ikastetxeak Hezkuntzaren arloko bestelako eragileak		1.500 €	2.000 €	2.500 €	- Antolatutako ikastaro eta ordu-kopurua. - Parte hartu duten ikastetxeen, irakasleen, begiraleen... kopuruak, guztiekiko (%) sexuaren arabera. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera bereizita.



ENPLEGUA ETA ETXEKO LANA

ABIATZE-EGOERA

Pertsonak egiten duten lana bi taldetan sailka daiteke: ordaindua edo ordaindu gabea. Enplegua neurtzera zuzendutako baliabide estatistiko gehienak bitartez, ordaindutako lana aztertzen da. Lan ordaindu gabea neurtzen duten datu estatistikoak, ordea, urriagoak dira.

Bergaran, ordaindu gabeko lana aztertzeko datuak ez ditugu topatu; beraz, etxeko lanen arloko egoera kuantitatiboa ezin dugu ezagutu.

Bergarako biztanleria aktiboaren artean emakumezkoak eta gizonezkoak zenbat diren ez dakigu, banatutako datuak ez ditugu eskuartean. Langabeziari dagokionez Bergaran, 2008an, emakumeen langabezia-kopurua gizonena baino altuagoa da: % 61ekoa, hain zuzen ere. 2009. urtean, ordea, egoera aldatu egiten da eta % 47ko da emakumeen langabeziako batez bestekoa. Gizonen kasuan, berriz, 2008an, %39koa da langabezia-tasa eta 2009an %52koa izatera pasa da.

Alde handia egin da urte batetik bestera. 2008an emakumeak ziren langabetu gehienak. 2009an, berriz, bi datu: bata, langabeziak nabarmen gora egin izana (krisia...) eta bestea, gizonezkoen langabeziak egin izana gora batez ere.

Estereotipo zehatzak daude oraindik. Hainbat gizonezkoren **kontzientzia** positiboa da, baina lan-murrizketetan, etxeko lanak... zenbaki globaletara joanda, oraindik ez dago hainbeste kontzientzia, Udalean gizonezkoak ere lan-murrizketak eskatzen hasi badira ere.

Askotan emakumeak ezin du kargurik hartu, etxeko kargak bere gain dituelako. Ez daudelako ondo banatuta.

Gainera, zenbait enpresatan, nahiago dituzte gizonak laneko produktiorako emakumeak baino. Horrez gain, bileretan zein arduetan gizonak dira nagusi.

Lehenengo aldiz baserritarren artean ordezkariak emakumeak du eta maiorazkoa gehienetan gizonezkoa izan beharra ere aldatu egin da. Kateak mozten ari dira.



ENPLEGUA ETA ETXEKO LANA

LEGE-MARKOA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 LEGEAK dioenez;

34. artikulua.– Xedapen orokorra.

Euskal herri-administrazioek aldian-aldian egingo dute Euskal Autonomia Erkidegoan egindako etxeko lanen balio ekonomikoaren kalkulua –hartan sartuta pertsonak zaintzeak dakarren lana–, eta kalkulu hori euskal gizarteari jakinaraziko diote, etxeko lanen garrantzi ekonomiko eta soziala ezagutu dezan. Halaber, etxeko lanen balioa aintzat hartuko dute politika ekonomikoak eta sozialak diseinatzerakoan.

35. artikulua.– Erantzunkidetasuna.

Euskal herri-administrazioek, hain zuzen, gizonek etxeko lanetan ere –pertsonak zaintzea barne– erantzukizunak har ditzatela sustatuko dute. Orobat, egokiak diren neurriak hartuko dituzte 49. artikuluan jasotakoa garatzeko arauetan gizonek ere arlo horretan erantzukizunak hartzea bultzatuko duten neurriak jaso daitezten.

37. artikulua.– Enplegu-zerbitzuak.

1.– Laneratzeari laguntzeko prozesuan parte hartzen duten enplegu-zerbitzuek ezin dute sexuaren zioz bereizkeriarik sortzen duen lan-kontraturik izapidetu.

2.– Enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipiora egokitu daitezten, euskal herri-administrazioek honakoak egin behar dituzte:

a) Laneraten laguntzeko prozesu integraleko fase bakoitzean genero ikuspegia nola txertatu erakutsiko diete, hain zuzen, beren enplegu-zerbitzuetako langileei eta erakunde laguntzaileetako. Laguntza-faseok hauek dira: informazioa eta orientazioa, prestakuntza, bitartekotza, laneratzeko laguntza eta laneratzearen jarraipena, eta sustapen enpresariala eta autoenpleguaren sustapena.

b) Enplegu-zerbitzuek emakume gutxi dagoen lanpostuetan emakume gehiago kontratatu daitezten lortzea helburu duten neurriak har ditzatela sustatuko dute.

39. artikulua.– Prestakuntza-planak.

1.– Enpresen prestakuntza-planei laguntzak emateko deialdi publikoetan, lehentasuna emango zaie erakundearen barruan emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu duten prestakuntza-ekintzei, bai eta emakumeei praktikak egiten lagunduko dietenei ere, bereziki emakumeek gutxi ordezkatuta dauden lanbideetan.

2.– Halaber, emakumeek prestakuntza-ekintzetan parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren laguntza-mekanismoak eta -zerbitzuak eratu behar dira, bai inoren konturako lanaren esparruan –bereziki emakumeak gutxiengoa diren lanpostuetara eta mailalara sartzeko gaitzen dituzten prestakuntza-ekintzak–, bai autoenpleguaren eta enpresen sorreraren arloan.

42. artikulua.– Negoziazio kolektiboa.

1.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bere langileekin hitzarmen kolektiboak negoziatzeko orduan, enplegu publikoaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak planteatu behar ditu. Era berean, elkarrizketa sustatu behar du lan-munduko ordezkarien artean, eremu pribatuko hitzarmen kolektiboen negoziazioan era honetako neurriak ere sar daitezten, batik bat ordainsari-bereizkeria desagerraraztera zuzendutakoak.

2.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak, hitzarmen kolektiboen erregistroaren bitartez, hitzarmenotan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkako klausularik ez egotea, hizkera ez-sexista erabiltzea eta jazarpen sexistaren aurka berariazko neurriak jasotzea zaindu beharko du. Horrekin batera, sexuaren ziozko bereizkeria kontrolatzeko eta erauzteko ikuskatzailetza bultzatuko du Administrazioak.



43. artikulua.– Jazarpen sexista.

1.– Delitu modura izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, lege honen ondoreetarako, jazarpen sexista hau izango da: lanean, nahi ez duen pertsona batekin eta horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada. Jokabide horrek sexuarekin zerikusia duenean, jazarpen sexista izango da.

2.– Jazarpen sexista diziplinako hutsegite oso larria izango da euskal herri-administrazioetako langileen kasuan, lege honetako 2.1 artikulua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 83.b artikuluari dagokionez, ezartzen duenarekin bat.

3.– Euskal herri-administrazioek ofizioz jardungo dute jazarpen sexista salatzen denean. Era berean, lanean jazarpen sexista prebenitzeko eta erazteko politikak jarri behar dituzte abian, beren langileei zuzenduta. Politika horiek, beste neurri batzuen artean, jarduketa-protokolo batzuk prestatzea eta aplikatzea aurreikusi beharko dute.

4.– Euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan, laguntza juridiko eta psikologiko urgentea, doanekoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuerakoa bermatu behar diete jazarpen sexistaren biktima direnei.



ARLOA: ENPLEGUA ETA ETXeko LANA							
ARDATZA: GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA (MAINSTREAMING-A)							
1. Genero-ikuspegia kontuan hartzea enpleguaren eta etxeko lanaren arloko jarduna planifikatu eta garatzerakoan							
2. Enplegu-, lanbide-prestakuntza eta orientazio-zerbitzuetan genero-ikuspegiarekin lan egiteko aurrera pausoak ematea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
E.M.1.1. Estatistiketan, formularioetan, gidetan, dokumentuetan eta bestelako edozein tresnetan datuak sexuaren arabera bereizten jarraitzea.	DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEA ENPLEGUA	INFORMATIKA					- Sexuaren araberako datuak bereizita egindako datu-bilketen kopuruak, guztiekiko (%).
E.M.1.2. Txostenak eta balantzeak egiten direnean emakumeen eta gizonen egoeraren azterketa konparatiboak eta ezberdinduak egiten jarraitzea.	DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEA ENPLEGUA						- Sexuaren araberako analisi konparatiboak jasotzen dituzten txostenen kopuruak, guztiekiko (%).
E.M.1.3. Komunikazio-kanpainetan irudi aurrerakoiak transmititzea: harreman ereduetan ematen den aniztasuna islatzea, emakumeen eta gizonen arteko ohiko rolen trukaketa ikustaraztea, etab.	DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEA ENPLEGUA						- Irudi aurrerakoiak transmititzeko helburua kontuan hartuta lan egin den dokumentazio kopuruak, guztiekiko (%).
E.M.2.1. Prestakuntza ekintzak antolatzerakoan, emakumeen presentzia sustatzeko sentsibilizazio-lana egiten jarraitzea.	DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEA ENPLEGUA						- Emakumeak erakartzeko egindako ekintzen kopuruak, guztiekiko (%). - Prestakuntza-ekintzetan parte hartutako emakume-kopuruak, guztiekiko (%). - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera bereizita.

ARLOA: ENPLEGUA ETA ETXEKO LANA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA							
1. Emakumeek egiten dituzten lanei balio sozial eta ekonomiko handiagoa ematea, bai ordaindu gabeko etxeko-lanei, baita ordaindutako lanei ere.							
2. Oro har, lan-munduan emakumearen presentzia indartzea, bai besteen menpeko langile gisa, baita enpresa-ekintzaile gisa ere.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
E.A.1.1 Etxearen eta familiaren zaintza-lanak eguneroko bizitzan duten garrantziaren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina egitea, ekonomiaren analisisian etxeko lanak duen garrantzia islatuz.	BERDINTASUNA			3.000 €		2.000 €	- Kanpaina-kopurua. - Kanpainako ekimenetan parte-hartzaileen kopuruak, sexuaren arabera berezita. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita.
E.A.1.2 Etxearen eta familiaren zaintzarekin lotutako lan-eskaintzetan kontratuak egin daitezen kanpaina bidez bultzatzea.	DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEA ENPLEGUA	BERDINTASUNA			3.000 €		- Egindako kanpaina kopuruak (%).
E.A.2.1 Emakumeen presentzia handiagotzen jarraitzea egiten diren prestakuntza-ekintzetan (autoenplegua, enpresa-ekimen berriak...).	DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEA ENPLEGUA						- Emakumeak erakartzeko egindako ekintzen kopurua, guztiekiko (%). - Prestakuntza-ekintzetan parte hartutako emakume-kopurua, guztiekiko (%). - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita.

ARLOA: ENPLEGUA ETA ETXEKO LANA							
ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA							
1. Bizitza-pertsonala eta lana uztartzeko aukerak hobetzea, eta neurriak bereziki lan-hitzarmenetan jasotzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
E.B.1.1 Udalean eta erakunde autonomoetan bizitza-pertsonala eta lana uztartzeko diren baliabide soziokomunitarioak aztertzea eta horien nahikotasuna neurtzea. Udal barruan neurri egokiak sortzeko prozesuak zabaltzea.	BERDINTASUNA	KOMITEA PERTSONALA		6.000 €			- Azterlana egin izana. - Eguneroko bizitza kontuan hartuta zabaldu edo egokitu diren zerbitzuen kopurua, guztiekiko (%). - Erabiltzaileen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita.
E.B.1.2 Bergarako enpresetan bateragarritasuna nolakoa den aztertzea eta hobetzeko har daitezkeen neurriak proposatzea (kanpainak, sindikatuekin harremanak...).	BERDINTASUNA	DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEA ENPLEGUA			6.500 €		- Azterlana egin izana. - Egoera hobetzeko proposatu den neurri-kopurua.

ARLOA: ENPLEGUA ETA ETXEKO LANA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA							
1 Enpleguko sexu-jazarpena prebenitzea eta gutxitzeko lehen pausoak ematea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
E.I.1.1 Udalerri mailan gertatu ei diren sexu-jazarpen kasuen azterketa egitea eta gaiaren inguruan sentsibilizazio-lana egitea.	BERDINTASUNA	DABEGOIENAKO MANKOMUNITATEA ENPLEGUA					- Azterketa egin izana. - Hartutako neurri kopurua eta betetze-maila.



GIZARTERATZEA

ABIATZE-EGOERA

Bergarako Udaleko Ongizate Sailak emandako datuen arabera, ezagutu diren tratu txar fisiko eta psikologikoen kasuak ugarituz doaz, 2007. urtetik 2009. urtea arte bikoiztu egin dira, hain zuzen ere (8 kasu 2007an eta 2008an; 2009an, aldiz, 16 kasu). Tratu txar psikologikoak ere urtez urte gehitu egin dira: 2007an, kasu 1; 2008an, 3 eta 2009an, 16. Eraso sexualen berririk ez da izan 2009. urte arte eta 2009an baten berri izan da. Honekin lotuta, salaketen kasuan ere igoera nabarmena izan da: 2007an 6, 2008an 10 eta 2009an 16.

Udalera iritsi diren salaketa guztiakin jartzen da martxan tratu txarren gaineko protokoloa. Behin hasiz gero, prozesu osoan egoten da Udala. Hala ere, Udalean ez dago emakumeenganako indarkeria prebenitzeko plangintzarik (ez herritarrei begira ezta udalean barnean ere)

Udalez kanpokoari dagokionez, lan boluntarioan emakumeak gehiago dira.

Marjinalitateko zenbait formatan, ez da berdin ikusia izaten emakumea edo gizona. Alkoholikoen kasuan, adibidez.

Elkarteetatik sentsibilizazio-kanpainak sustatu arren, sentsibilizatutako jendearengana heltzen da. Oso zaila da biztanleri osoarengan heltzea.

Azkenik, kanpoko proiektuekin asko lan egiten da. Generoaren gaia asko lantzen duten zerbait da gizarteratzeko jardunean..



GIZARTERATZEA

LEGE-MARKOA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 LEGEAK dioenez;

45. artikulua.– Gizarteratzea.

1.– Euskal herri-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte pobreziak eta gizarte-bazterkeriak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondorioei aurre egiteko. Horretarako, alde batetik, genero-ikuspegia txertatuko da pertsona guztiek oinarritzko giza eskubideak erabili ahal izango dituztela bermatzea helburu duten sektore-programetan, eta bestetik, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen kolektiboetako zuzendutako programa zehatzak diseinatuko dituzte.

2.– Euskal herri-administrazioek beharrezko neurri juridikoak eta ekonomikoak bultzatuko dituzte gertakari batzuen ondorioz baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen baldintzak hobetzeko. Gertakari horiek bi izango dira: batetik, alargun gelditzea, eta bestetik, hitzarmen judizialki onartuan edo ebatzen judizialean ezarritako pentsio osagarriak eta mantenu-pentsioak ez jasotzea. Bigarren hori gertatzeko egoerak hauek izan ohi dira: ezkontza-deuseztasuna, legezko ezkontza-banaketa, dibortzioa, izatezko bikotea hausturaz iraungitzea edo filiazio- edo mantenu-prozesua. Gorago aipatutako helbururako, berme-funts bat sortuko dute pentsioak ordaintzen ez direnerako, eta osagarriak eratuko dituzte alarguntasun-pentsio apalenerako.

3.– Euskal herri-administrazioek adineko emakumeen ongizatea eta gizarte-basesa zainduko dute, eta adineko emakumeek bitzita politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte har dezaten sustatuko.

4.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak plan bat prestatuko du prostituzioaren arloan jarduteko, administrazio enparauekin eta eremu horretan lanean ari diren gizarte-taldeekin batera.



ARLOA: GIZARTERATZEA							
ARDATZA: GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA (MAINSTREAMING-A)							
1. Genero-ikuspegia kontuan hartzea gizarteratzearekin lotutako jarduna planifikatu eta garatzerakoan. 2. Diskriminazio- edo bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoerak hobetzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
G.M.1.1 Estatistiketan, formularioetan, gidetan, dokumentuetan eta bestelako edozein tresnetan datuak sexuaren arabera bereiztea. Batetik, datuen homogeneizatzea lortze aldera informatikoki beharrezko diren aldaketak eginez eta bestetik, beharrezko diren genero-aldagai berriak sortuz (adibidez, espediente administratiboetan sexua aldagaia sartzea...).	GIZARTE ZERBITZUAK	INFORMATIKA					- Sexuaren arabera datuak bereizita egindako datu-bilketen kopuruak, guztiekiko (%).
G.M.1.2 Txostenak eta balantzeak egiten direnean emakumeen eta gizonen egoeraren azterketa konparatiboak eta ezberdinduak egitea.	GIZARTE ZERBITZUAK						- Sexuaren arabera analisi konparatiboak jasotzen dituzten txostenen kopuruak, guztiekiko (%).
G.M.1.3 Komunikazio-kanpainen irudi aurrerakoiak transmititzea: harreman erduetan ematen den aniztasuna islatzea, emakumeen eta gizonen arteko ohiko rolen trukaketa ikustaraztea, etab.	GIZARTE ZERBITZUAK						- Irudi aurrerakoiak transmititzeko helburua kontuan hartuta lan egin den komunikazio-kanpainen kopuruak, guztiekiko (%). - Sexuaren arabera datuak bereizita egindako datu-bilketen kopuruak, guztiekiko (%).



EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
G.M.1.4 Jarduerak eta ekintzak egiteko eskaintzen dituen diru-laguntza deialdietan aukera-berdintasunaren sustapenarekin lotutako irizpideak txertatzen jarraitzea.	GIZARTE ZERBITZUAK						- Aukera-berdintasuna sustatzeko irizpideak jasotzen dituzten diru-laguntza deialdien kopuruak, guztiekiko (%). - Aukera-berdintasuna sustatzeko helburua duten lagundutako ekimenak, guztiekiko (%).
G.M.2.1 Diskriminazio- edo bazterketa-arriskuan dauden emakumeen egoerak eta premiak aztertzea, diru-laguntzen onuradun direnen azterketatik hasita.	GIZARTE ZERBITZUAK				6.000 €		- Diskriminazio- edo bazterketa-egoeran dauden emakumeen beharren azterketa egin izana, baita emandako laguntzen nahikotasuna ikertu izana, beti ere emakume hauen ikuspegia kontuan hartuta. - Azterketaren emaitzen arabera, hartutako neurri-kopurua..



ARLOA: GIZARTERATZEA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA							
1. Diskriminazio- edo bazterketa-egoeran dauden emakumeen ahalduntzea sustatzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
G.A.1.1 Diskriminazio- edo bazterketa-egoeran dauden emakumeentzako elkarlaguntza-taldeak antolatzea (etorkinak - migrazio proiektuarekin elkarlanean-, alargunak, ez-gaituak, dependienteak...).	GIZARTE ZERBITZUAK			1.000 €	1.200 €	1.500 €	-Antolatutako elkarlaguntza-taldeen kopurua. -Ikastaro bakoitzaren parte-hartzaile kopuruak. -Partaideen asebetetze-maila.



ARLOA: GIZARTERATZEA							
ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA							
1. Familia-zaintza lanetan emakumeen eta gizonen ardura banaketa orekatzea. .							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
G.B.1.1 Bateragarritasuna lortzeko beharrezko zerbitzu sozio-komunitarioak bultzatzea (zaintzaileen laguntza-taldea....).	GIZARTE ZERBITZUAK						- Egindako ekintza kopurua.
G.B.1.2 Erantzunkidetasunaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina antolatzea, bereziki gizonei zuzenduta.	BERDINTASUNA			3.000 €		4.000 €	- Ekimen-kopurua. - Kanpainako ekimenetan parte-hartzaileen kopuruak, sexuaren arabera bereizita. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera bereizita.



ARLOA: GIZARTERATZEA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA							
1. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta horren inguruko sentsibilizazioa garatzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
G.I.1.1 Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko estrategiak garatzea, eta bereziki gizonei zuzendutako edo gizonekin elkarlanean aritzeko aukerak sortzea.	BERDINTASUNA				1.800 €	1.800 €	- Indarkeria prebenitzeko sortutako estrategien kopurua. - Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren arabera. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita.
G.I.1.2 Indarkeria sexistari aurrea hartzeko antolatzen diren ekintzetan Bergarako emakumeen aniztasuna eta ezaugarriak aintzat hartzea, alegia, informazioa hizkuntza ezberdinetan kaleratzea, informazio hau emakume guztiengana iritsi dadin komunikazio-bide aproposenak erabiliz, eta behar den kasuetan kolektibo zehatzentzako komunikazio ekintza (edo kanpaina) fokalizatuak eginez: gazteak, atzeritarrak, eta abar.	BERDINTASUNA			1.800 €	2.000 €	2.800 €	- Garatutako ekimen-kopurua, emakumeen hizkuntza-aniztasuna kontuan hartuz, ekimen guztiakiko (%). - Erabilitako komunikazio-bideen aniztasuna, ekimen guztiakiko (%).

OSASUNA
ABIATZE-EGOERA
<p>Osasuna bizi-kalitatearen adierazle nagusietako bat da, elementu biologizistaz gainera, alderdi psidologikoak, sozialak eta kulturalak hartu behar dira kontuan.</p> <p>Emakumeen arazoan, beharren eta ikuspegiaren presentzia txikiagoa izan da tradizionalki medikuntzan. Bestalde, emakumeen osasun-baliabideak beste modu batean erabiltzen dituzte, beren burua zaintzeko beste modu batzuk dituzte eta bestelako arriskuzko jokabideak dauzkate.</p>

OSASUNA
LEGE-MARKOA
<p>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 LEGEAK dioenez;</p> <p>44. artikulua.– Osasuna.</p> <p>1.– Euskal herri-administrazioek emakumeei osasuna hobetzen lagundu behar diete beren biziaren osoan; arreta berezia eskainiko diete, orobat, emakumeengan eragin handiena duten osasun-arazoei.</p> <p>2.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna behartu behar du osasunarekin zerikusia duen ikerkuntzan eta arretan. Horretarako, aintzat hartuko du gizonen eta emakumeen dituzten egoerak, baldintzak eta beharizanak desberdinak direla, eta, ondorioz, politika espezifikoak garatuko ditu beharrezkoa denean. Bestalde, azterketa, eztabaida eta kontzientziatzea suspertu behar du profesionalen, erabiltzaileen eta osasun-sistemarekin zerikusia duten eragile artean eremu horretan emakumeek eta gizonen dituzten desberdintasunei buruz.</p> <p>3.– Asistentzia-prozesuen diseinua egiterakoan, Osasun Administrazioak neurriak hartu behar ditu osasun-arazoak dituzten pertsonak zaindu beharrik –ordaindu gabe eta gehienbat emakumeek zaindu ere– etxeetan eragiten duen karga arintzeko.</p> <p>4.– Euskal herri-administrazioek bete egin behar dituzte sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzeak dakartzen beharizanak. Horretarako, prebentzio- eta asistentzia-programak prestatuko dituzte; horien artean egongo dira planifikazio sexuala erraztera eta nahigabeko haurduntzeak eta sexu bidez transmititutako gaixotasunak saihestera bideratutakoak.</p>



ARLOA: OSASUNA							
ARDATZA: GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA (MAINSTREAMING-A)							
1. Herritarrei sexu-informazio osoa eskaintzea, genero ikuspegia kontuan hartuz.							
2. Bergarako emakumeen osasun arreta egokia bermatzea, arreta horretan ematen diren oinarrizko defizitak azaleratuz.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
O.M.1.1 Sexu-informazio nahiak eta beharrak aztertzea inkesta baten bitartez, eskoletako sexu-heziketa programaren bitartez, betiere nesken eta mutilen nahiak eta beharrak modu separatuan analizatuz.	BERDINTASUNA			3.000 €			- Azterketa egin izana. - Informatzaileen kopuruak, sexuaren arabera bereizita. - Datuen eta ondorioen analisi konparatiboa, sexuaren arabera bereizita.
O.M.1.2 Genero-ikuspegia txertatua duen sexu-informaziorako zerbitzua sortzeko azterketa egitea eta baliabideak martxan jartzea.	BERDINTASUNA				5.000 €	10.000 €	- Zerbitzua sortu izana. - Genero-ikuspegia bermatzeko hartutako neurri-kopurua. - Erabiltzaileen asebetetze-maila, sexuaren arabera bereizita.
O.M.2.1 Emakumeentzako herrian dauden mediku-zerbitzuen nahikotasuna aztertzea.	BERDINTASUNA			3.000 €			- Zerbitzu hauen nahikotasunaren azterketa egin izana. - Eraitzen arabera, hartutako neurri-kopurua.



ARLOA: OSASUNA

ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

1. Emakumeen beraien osasunaren inguruan erabaki gehiago hartzea.
2. Drogamenpektasuna: kontsumoaren azterketa egitea.

EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
O.A.1.1 Nagusi den edertasun-eredua indargabetzeko gaia lantzea, hainbatetan Plan honetan agertzen diren beste ekintzetan gaia txertatuz eta bereziki emakumeak kontuan izanda.	BERDINTASUNA						- Gai landutako ekimen-kopurua, guztiekiko (%).. - Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren arabera. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera berezita..
O.A.2.1 Drogamenpektasunaren inguruan egiten diren azterketetan emakumeen eta gizonen jokaeren eta kontsumo-estiloen inguruan azterketa berezituak egitea, zergatiak eta ondorioak modu berezitan aztertzea eta ondorioz, esku-hartze espezifikoak diseinatzea.	GIZARTE ZERBITZUAK						-Azterketa berezitua egin izana. -Hartutako neurri kopurua eta betetze-maila.



ARLOA: OSASUNA							
ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA SUSTATZEA							
1. Familia-zaintzaren ardura emakumeen eta gizonen artean modu parekidean banatzeko neurriak hartzea (haurren, adinekoen eta orokorrean menpekotasun-egoeran daudenen zaintza).							
2. Zaintzaren ardura beren gain hartzen duten emakumeen eskubideak eta ongizatea sustatzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
O.B.1.1 Gizonen inplikazioa familia zaintza-lanetan areagotzeko ekintzak antolatzea, adibidez, aita berriei zuzendutako ikastaroen bitartez, haurren eta nagusien zaintzan eta masajeen trebatzeko.	BERDINTASUNA				2.000 €	2.200 €	- Gizoni zuzenduta antolatutako ekintzen kopurua, guztiekiko (%). - Parte-hartzaileen kopurua. - Partaideen asebetetze-maila.
O.B.1.2 Menpekotasun- eta gaixotasun-egoeran dauden emakumeen familia-kideen artean erantzunkidetasuna sustatzea eta gizonezkoei zaintza-lanetan trebakuntza saioak eskaintzea.	BERDINTASUNA			2.000 €	2.200 €	2.500 €	- Helburuarekin lotuta egindako ekimen-kopurua. - Gizoni zuzenduta antolatutako ekintzen kopurua, guztiekiko (%). - Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren arabera bereizita. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera bereizita.
O.B.2.1 Emakumeei familia-ardura delegatzeko eta autozaintzarako estrategiak eskaintzea.	BERDINTASUNA			2.000 €	2.200 €	2.500 €	- Helburuarekin lotuta egindako ekimen-kopurua. - Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren arabera bereizita. - Partaideen asebetetze-maila, sexuaren arabera bereizita.



ARLOA: OSASUNA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA							
1. Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako laguntza fisikoa eta psikologikoa hobetzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
G.I.1.1 Indarkeriaren biktimentzako zerbitzuak aztertzea eta behar izanez gero hobetzea, Udal protokoloaren lanketaren barruan.	BERDINTASUNA	GIZARTE ZERBITZUAK					-Azterketa egin izana. -Emandako zerbitzuak.



HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA GARRAIO PUBLIKOA

ABIATZE-EGOERA

Lurralde eta hirigintza antolamenduak ez ditu, tradizionalki, emakumeen behar eta interesak kontuan izan. Izan ere, garatutako politikak mundu produktiboaren beharretan oinarrituta egon dira, eta emakumeek gizonezkoek baino askoz ere ordezkartza txikiagoa izan dute historikoki mundu horretan. Ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraio politika eta programetan kontuan hartzeko gaiak beharko lukete izan emakumeen partaidetzak, parekotasunak planifikazio eta erabaki prozesuetan, emakumeen segurtasunak eta segurtasun sentzazioak gune publikoetan eta azpiegituren egokitzapenak.

Bergaran, egun, udal zerbitzuak denentzat dira, baina hiri-gunea lehenesten da. Kalerako badira neurri zehatzak, kontuan hartzen da, adibidez, espaloia egiterakoan, ume-kotxearekin dabilenaren beharra. Kalean aurreratuko daude. Hala ere, gizonezkoaren ikuspegia da nagusi oraindik Auzoetan, berriz, oinarritzakoak dira beharrak. Beharra zenbat eta oinarritzakoagoa, zerbitzua zenbat eta txikiagoa, orduan eta atzerago gelditzen da emakumearen beharra betetzea. Desabantaila bikoitza du hor.

Auzoetara hurbildu litezke hainbat gauza. Baserritarren beharretara ere bai: kontserbagintzako ikastaroak, etab.

Herriko eremuak elkarrekin lotzeko autobus bat edo antzeko garraiobideren bat behar litzateke.

Bergarako kaleetan ez dago ia emakumeen erreferentziarik: emakumeen izena duten kale eta eraikin gutxi dago.



HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA GARRAIO PUBLIKOA

LEGE-MARKOA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 LEGEAK dioenez;

46. artikulua.– Ingurumena eta etxebizitza.

1.– Euskal herri-aginteei beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere.

2.– Etxebizitzak esleitzeko orduan, euskal herri-administrazioek lehentasunezko tratua emango diete bazterkerian edo legeak aurreikusitako beharizan-egoeran dauden emakumei. Erregelamenduz zehaztuko dira horretarako baldintzak.



ARLOA: HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA GARRAIO PUBLIKOA							
ARDATZA: GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA (MAINSTREAMING-A)							
1. Hirigintzaren, ingurumenaren eta garraio publikoaren eremuan genero-ikuspegia txertatzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
HI.M.1.1 Genero-ikuspegia kontuan hartzen hastea etxebizitza politikan, bizi-kalitatean eta ingurumenean.	HIRIGINTZA	Agenda 21					- Genero-ikuspegia txertatua izan den planen edo ekimenen kopurua, guztiekiko (%).
	INGURUMENA	Agenda 21					
HI.M.1.2 Genero-ikuspegia kontuan hartzen hastea irisgarritasunean, mugikortasunean eta hiri seinalizazioan.	HIRIGINTZA	Agenda 21					- Genero-ikuspegia txertatua izan den planen edo ekimenen kopurua, guztiekiko (%).
	GARRAIOA	Agenda 21					
HI.M.1.3 Estatistiketan, formularioetan, gidetan, dokumentuetan eta Udalak erabiltzen duen bestelako edozein tresnetan datuak sexuaren arabera bereiztea.	HIRIGINTZA	INFORMATIKA					- Sexuaren arabera datuak bereizita egindako datu-bilketen kopuruak, guztiekiko (%).
HI.M.1.4 Txostenak eta balantzeak egiten direnean emakumeen eta gizonen egoeraren azterketa konparatiboak eta ezberdinduak egitea.	HIRIGINTZA						- Sexuaren arabera analisi konparatiboak jasotzen dituzten txostenen kopuruak, guztiekiko (%).

ARLOA: HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA GARRAIO PUBLIKOA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA							
1. Emakumeek gaur egungo eta herriaren historian egindako ekarpenak hiri-elementuetan islatzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
HI.A.1.1 Emakumeen gaur egungo eta herriaren historian egindako ekarpenak hiri-elementuetan islatzeko proposamenak egitea: kaleen eta plazen izenak, monumentuak eta eskulturak eta hauen egileak, eta bestelako hiri-egiturak.	KULTURA	HIRIGINTZA BERDINTASUNA					- Izendatutako hiri-elementuen artean, emakumeen izena dutenen kopurua (%).

ARLOA: HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA GARRAIO PUBLIKOA							
ARDATZA: BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA SUSTATZEA							
1. Garraio publikoaren azpiegiturak egokitzea bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lana uztartu ahal izateko lehen pausoak ematea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
HI.B.1.1 Bergaran garraio publikoaren beharraz azterketa egitea, bereziki herri-gunetik kanpo dauden auzoek dituzten garraio publikoaren beharrak aztertuta.	GOBERNAZIOA	UDALTZAINGOA			18.000		- Azterketa egin izana. - Hartutako neurri kopurua eta horien betetze-maila.



ARLOA: HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA GARRAIO PUBLIKOA							
ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA							
1. Emakumeei segurtasun eza sortzen dieten hirigintza-arazoei irtenbidea ematea, eta bereziki Puntu Beltz* berriak ez sortzeko neurriak hartzea.							
EKINTZAK	ARLO ARDURADUNA	PARTE- HARTZAILEA	URTEA / AURREKONTUA				ADIERAZLEA(K)
			10	11	12	13	
HI.I.1.1 Egungo Puntu Beltzei buruzko azterketa egitea eta, emaitzen arabera, konponbidea bermatzeko neurriak hartzea.	HIRIGINTZA	GOBERNAZIOA			12.000 €		-Identifikatutako Puntu Beltzen kopurua. -Konpondutako Puntu Beltzak, guztiekiko (%).
HI.I.1.2 Plangintza berriak egiten direnean Puntu Beltzak sortuko ez direla bermatzea.	HIRIGINTZA						-Genero-ikuspegiarekin landutako plangintza-kopurua, guztiekiko (%). -Plangintza berriak egindakoan identifikatutako Puntu Beltz berrien kopurua.

* Puntu Beltzak: Erasotua izateko arriskua edota erasoen aurreko ziurgabetasuna sortzen duten lekuak. Puntu hauetan ezin dira beste pertsonak ezberdindu, ezin da ezer entzun edota ezin zaituzte entzun, ezinezkoa da laguntza eskatzea, mantentze-lana urria da eta giro deserosoa sortzen du.

1.4. BERGARAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA GARATZEKO EGITURAK

Bergarako Emakume eta Gizonen Berdintasun Plana, aipatu bezala, 4/2005 Emakume eta Gizonen Berdintasun Legearen eta EAeko Gizon eta Emakumeen berdintasunerako IV. Planaren arabera kudeatu behar da. Ondorioz, Planak Udaleko maila guztietan berdintasun-politiken garapena, eraginkor bihurtu behar du.

Berdinsareak, Eudelek eta Emakundek idatzitako “Tokiko berdintasun planak diseinatzeko, kudeatzeko eta balioesteko gidak”, Planaren prozesu osoan zehar (diseinua, kudeaketa eta ebaluazioa), udaleko berdintasun-politikaren ardura duen ordezkari politikoaren lidergoa eta parte-hartzea beharrezkoa dela aipatzen du. Lidergoa edozein Planetan arrakastarako ezinbesteko baldintza izanik, unean uneko alkatearen eta Berdintasun Arloaren ardura duen zinegotziaren lidergoa eta aliantza funtsezkoak dira.

Plana **zeharkakotasunaren** ikuspegitik egingo da, hots, udalaren arlo eta zerbitzu guztiek bere gain hartutakoa da, bai ekintzen kudeaketa ekonomikoetan eta gauzapenean islatu den konpromiso formal gisa, bai emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren aldeko konpromiso formal gisa; konpromiso pertsonal horrek erantzukizunak bere gain hartzeko eta berdintasunerako politiken arloko gaikuntza saioetan parte hartzeko prozesuan izango du isla. Hala, helburu oro lortzeko, helburu bakoitzarekin lotzen da udaleko arlo arduraduna.

Plazaratutako helburuak eta Plana orokortasunean garatzeko hainbat lan-esparru edo egitura beharrezkoak dira. Hauetako bakoitzak bere funtzioak izango ditu. Jarraian, proposatutako egiturak eta funtzioak azaltzen ditugu:

1.4.1. Berdintasun saila

Berdintasun Planaren garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea

Funtzioak	Parte-hartzaileak	Iraupena
<ul style="list-style-type: none"> Planaren testuinguruan aurrera eramango diren ekintza guztiak bultzatzea eta koordinatzea, planak koherentzia izan dezan. Planak esleitutako ekintza eta helburu zehatzak garatzea. Planaren garapenean inplikaturako egiturak koordinatzea. Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea. Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea. Planaren komunikazioa egitea. Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasun-technikaria Berdintasun-zinegotzia 	2010-2013

1.4.2. Berdintasun Kontseilua

Berdintasun Planaren garapenari jarraipena egitea eta bere ekarpenak egitea

Funtzioak	Parte-hartzaileak	Iraupena
<ul style="list-style-type: none"> Berdintasunaren gaiaren inguruan Udalari aholkua ematea. Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea. Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea. Iritzia eta analisirako gaitasuna sortzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasun-technikaria Berdintasun-zinegotzia Bergarako eragileak 	2010-2013



1.4.3. Berdintasunerako Batzorde Politikoa		
Planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa bermatzea		
Funtzioak	Parte-hartzaileak	Iraupena
